

# Nola lotu etxea, lana eta haurrak?

Gaur egun, oso zaila da lana, etxea eta haurrak uztartzea. Nahikoa da gorabehera txiki bat gertatzea gu guztiok dantzan jartzeko: ikastolan jai dutela, autobusa berandu edo iritsi ezinik dabilela, amonak irrist egin eta mokorra hautsi duela, haurren zaintzailea gaixotu egin dela... kaosa!!!! Zer egingo dugu?

Ustekabea txikia bada ere, endredoa handia izaten da. Berez, eguneroko martxa, "puzlea" estu-estu antolatuta dugu, baina pieza batek huts eginez gero, dena hankaz gora jartzen du. Horregatik, askok, etor litezkeen arazoei aurrea hartuz edo, honelako erabakiak hartzen ditu: ordutegi murriztua duten lanak, aldi baterako lanuzteak, aitona-amonen laguntza... etab.



## 1- Mikelek egiten duena

Familia eta lana nola uztartzen edo lotzen dituzten ikusteko, hona hemen Mikel eta Anaren adibidea. Bikote arrunt bat da, ezkondata daude eta bi haur dituzte.

Irakur ezazu orain Mikelek, senarrak, egunero egiten duena:

Egunero goizeko seietan esnatzen naiz, gutxi gorabehera, zazpitan lantokian egon behar dudalako. Jaiki ondoren, dutxa eder bat hartzen dut, esnatzeko, segidan arropa janzten dut eta ondoren, ondo eta lasai gosaltzen dut nire emaztearekin, irratia entzuten dugun bitartean. Autobusez joaten naiz lanera. Goizeko zapietatik eguerdiko ordu biak arte lan egiten dut. Lanetik atera eta etxean bazkaltzen dut normalean, bakarrik. Lo-kuluxka bat egiten dut bazkalondoa eta esnatzen naizenean, etxeko-lanak egiten ditut: aspiradora pasa, bainugela garbitu, sukaldea jaso... Ondoren, erosketak egitera joaten naiz, nire emazteak arratsalde ere lan egiten duelako. Haurrak jasotzera ni joaten naiz egunero, nire emazteak eramaten baititu goizean. Haurrak jasotakoan, elkarrekin etxeratzen gara eta nire emaztea lanetik etortzen den arte hurrei eskolako lanak egiten laguntzen diet. Nire emaztea lanetik iristen denean, atera egiten naiz: batzuetan, igerilekura joaten naiz, besteetan, lagunuen batekin geratzen naiz...eta ikastolan bileraren bat badago, neu joaten naiz beti. Afaltzeko garaian beti izaten naiz etxean, nire familiarekin. Afaldu eta gero ordenagailuan aritzen naiz pixka batean, baina nahiko goiz oheratzen naiz beti. Lasaiago ibiltzea gustatuko litzaidake, baina une honetan, horrelakoa da nire bizimodua, gogorra benetan!

Testua irakurri ondoren, galderei erantzun:

- 1.- Zer ordutan esnatzen da Mikel?
- 2.- Zer ordutan egon behar du lantokian Mikelek?
- 3.- Zer egiten du jaiki ondoren?
- 4.- Zer egiten du dutxatu eta gero?
- 5.- Nola joaten da lanera?
- 6.- Noiz ateratzen da lanetik?
- 7.- Zer egiten du bazkalondoa?
- 8.- Nork jasotzen ditu haurrak ikastolatik?
- 9.- Nork laguntzen die hurrei eskolako lanak egiten?
- 10.- Zer egiten du Mikelek bere emaztea etxeratzen denean?
- 11.- Non afaltzen du normalean Mikelek? Norekin?

## 2- Anak egiten duena

Orain Mikelen emazteak, Anak, egiten duena irakurriko duzu:

Egunero goizeko sei eta erdietan esnatzen naiz, nire senarra Mikel sumatzen dudalako (zarata handia ateratzen du eta). Bederatzietan egon behar dut lantokian, baina gauza asko egiten ditut hori baino lehen. Jaiki ondoren, Mikel dutxan dagoen bitartean, gosaria prestatzen dut biontzat eta elkarrekin gosaltzen dugu. Mikelek lanera joateko autobusa hartzen duenean haurrak esnatu eta ikastolara eramaten ditut egunero. Goizez eta arratsaldez lan egiten dut. Haurrek ikastolan bazkaltzen dute egunero eta gaixotzen direnean Mikelen amak zaintzen ditu bere etxean edo eramaten ditu sendagilearengana.

Ni lanetik atera eta zuzenean etxera joaten naiz. Orduan, Mikel, nire senarra, atera egiten da eta ni, berriz, afaria prestatzen hasten naiz. Elkarrekin afaltzen dugu denok. Afalondoan, haurrak ohera bidali eta irakurtzen aritzen naiz oheratzeko garaia iristen den arte.

Askotan, neka-neka eginda joaten naiz ohera, egun osoa ematen baitut batetik bestera eta uste dut denbora gutxi ematen dudala nire haur eta senarrarekin.

Testua irakurri ondoren, galderei erantzun:

- 1.- Zer ordutan esnatzen da Ana?
- 2.- Zer ordutan egon behar du lantokian Anak?
- 3.- Zer egiten du jaiki ondoren?
- 4.- Nola joaten da lanera?
- 5.- Noiz ateratzen da lanetik?
- 6.- Zer egiten du Anak etxeratzen denean?
- 7.- Zer egiten du Anak afalondoan?

## 3- Lana eta familia uztartzea zaila da

Ikusi dugunez, lana eta familia uztartzea zaila da askotan eta horregatik, jende askok irtenbideak bilatzen ditu. Adibidez, orduen murrizketa eskatzen du lantokian; hau da, ordu gutxiago lan egitea. Baina gehienetan emakumeak dira ordu gutxiago lan egitea erabakitzen dutenak.

*Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko 2007ko txostenak* gizartearen zenbait alorri buruzko adierazle kuantitatibo batzuk jasotzen ditu. Horien artean adierazpen hauen aurrean bildutako erantzunak:

<b>Etxeko lanak</b>	<i>"Etxeko lanen ardura dut"</i>	<i>"Nire ezkontidea hurrez arduratzen da"</i>	<i>"Lanaldi partzialeko kontratua dut"</i>	<i>"Zaintza lanez arduratzeko, lan- edo gizarte jardueraren bati uko egin diot"</i>
Emakumeak	%70	%8	%28	%30
Gizonezkoak	%30	%40	%4,2	%12

Oso gizon gutxi dira, beraz, etxeko eta familiako eginkizunez arduratzen direnak. Ale batzuk baino ez.

Zure ustez, zergatik eskatzen dute emakume gehiagok ordu gutxiago lan egitea?

- a.- Normalean, gizonak baino diru gutxiago irabazten dutelako.
- b.- Gizonei lotsa ematen dielako.
- c.- Gizonak baino alferragoak direlako
- d.- Beste arrazoi honengatik:

Zer iruditzen zaizu gizonak eskatzea? Supergizonak al dira horregatik?

- a.- Bai, benetan ausartak iruditzen zaizkit.
- b.- Ez, ez dira supergizonak, pertsona normalak eta zentzuzkoak baizik.
- c.- Oso jarrera arraroa iruditzen zait hori.
- d.- Uste dut

Gogoan izan ideia hauek, bukaerako idatzia egiteko erabili beharko dituzu eta!

## 4- Gizon batzuek hartutako erabakiak

Jarraian ordu gutxiago lan egitea aukeratu duten gizon batzuen adibideak irakurriko ditugu:

**Iñaki: "Benetako aita zarenean, familiarekin gozatzen zara"**

"Amatasun-bajagatik lau aste eskatu nituen. Bi seme-alaba ditut, urtebete eta lau urtekoak. Gure bigarren haurra jaio zenean, bi egun hartzeko esan zidaten lantokian, baina nik lau aste hartu nituen. Zuzena iruditu zitzaidalako eta neure haurrekin egon nahi nuelako egin nuen. Enpresan ez zuten batere ondo hartu, baina, hala ere, berriro egingo nuke. Familiarekin inplikatur gero, lana alde batera uzten duzula uste dute batzuek, baina gezurra da. Egia da gizonok inertziaz jokatzeko dugula, baina gaur egun ez dauka zentzurik, gauza asko galtzen ditugulako. Benetako aita izatea zer den probatu dudanean, etxeko martxaren eta haurren ardura hartu dudanean, oso pozik sentitu naiz eta ez naiz batere damutu. Lehen baino hobeto bizi naiz orain, zoriontsuago".

**Rafael: "Ez da haurren errua gurasoek lan egitea"**

"Bi haur ditut, bi eta bost urtekoak. Ordutegi-aldaketa eskatu nuen, goizez hurrez arduratzeko. Lehen, gure haurrek ordu asko ematen zituzten etxetik kanpo: goizeko zazpietatik arratsaldeko bostak arte. Ikastolan gosalduta eta bazkaltzen zuten eta arratsaldean aitona edo amona joaten zitzairen bila ikastolara.

Gure lantegian aukera eman zigutenean, ez nuen bi aldiz pentsatu eta arratsaldez lan egitea aukeratu nuen, goizean haurrak ikastolara eramanez ahal izateko. Ikastolan jartzen dizkieten etxerako lanen ardura nirea da eta beste lan guztiak emaztea eta bion artean egiten saiatzen gara, bion artean banatzen ditugu.

Nire lagun batzuek esaten didate haurrak eta etxea zama direla, baina nik ez dut berdin pentsatzen, gizonen ardura ere bada, ez bakarrik emakumeena".

### **Joseba: "Lanaldiaren murrizketari esker, arazo bat gutxiago daukat lantokian"**

"Sei eta hamar urte dituzten seme-alaben ardura handiagoa izateko, lanaldiaren murrizketa eskatu dut. Hiritik alde egin eta mendi aldera bizitzera joan ginen, baina haurrak eskolara egunero eraman behar zirenez, lanaldi-murrizketa eskatu behar izan nuen lantokian. Jakin badakit ez dela ohikoa, baina emazteak eta biok ikusi genuen gehiago komeni zitzaigula murrizketa nik eskatzea, berak gehiago irabazten baitu. Badira hilabete batzuk ordubete gutxiago lan egiten dudala eta oso gustura nagoela esan behar dut. Ondo emandako denbora da eta uste dut enpresari ere merezi diola, arazo bat gutxiago eramaten dudalako bulegora. Langilea ala aita izatearen artean aukeratu behar ez izateko modu bat da, bi gauzak ondo egiteko aukera bat, ahal den neurrian, behintzat".

### **Patxi: "Konturatu nintzen aukeratu egin behar nuela: lana ala bizitza"**

Gauzez lan egiten hasteko txanda-aldaketa eskatu zuen eta ondoren, eszedentzia, bere emaztea zaindu ahal izateko. Seme bakarra du bikoteak.

"Duela hilabete batzuk nire emazteak bi eskumuturrak hautsi zituen auto-istripu batean eta orduz geroztik nire laguntza behar du edozer egiteko. Hasieran, txanda aldatu eta gauzez egiten nuen lan, baina ez zen nahikoa izan eta horregatik lana uztea erabaki nuen, eszedentzia bat eskatuta. Emaztea bere kasa moldatzen ez den bitartean etxean geldituko naiz eta berak bajatik jasotzen duen soldatetik bizi gara hirurok, nahiz eta diru gutxi den, egia esan".

### **Testuak irakurrita, saia zaitetz esaldi hauetako hutsuneak betetzen:**

1. Iñakik  gatik lau aste eskatu zituen.
2. Rafaellek  eskatu zuen, goizez hurrez arduratzeko.
3. Josebak  eskatu behar izan zuen lantokian.
4. Patxik  eskatu zuen gauzez lan egiten hasteko.

**Conciliar:** Batu/uztartu/adostu/bateratu

**Compaginar:** Bat egin/batera egin/uztartu

**Reducción de jornada:** Lanaldi-murrizketa/ordutegi-murrizketa

**Horario de trabajo:** Lan-ordutegia

**Flexibilidad horaria:** Ordutegi-malgutasuna/ordutegi(ar)en malgutasuna

**Posibilidad:** Aukera/parada

**Satisfacción:** Asebetetzea/gogobetetzea

**Jornada laboral:** Lanaldia

## 5- Zenbat buru, hainbat aburu

Gaiari buruzko iritzi batzuk bildu ditugu, bai aldekoak bai aurkakoak, zure iritzia eman baino lehen azter ditzazun. Ondoren, ardura banatzearen alde eta aurka zein dagoen esan beharko diguzu:

Sailka itzazu irakurritakoak eta esan norentzat den ezinbestekoa etxea, lana eta familia uztartzeko neurriak hartzea, alegia, nor dagoen ardurak banatzearen alde eta nor aurka:

	ALDE DAUDENAK	AURKA DAUDENAK
Estibalitz: Nire aburuz, lana eta familia konbinatzea ez da amatasun-baja hartzea bakarrik.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Bautista: Garbi dago gizonok uztartu egin nahi ditugula familia eta lana, baina beste kontu bat da haurra jaio eta lehenengo urtea berarekin pasatzeko premia biologikoa izatea. Hori emakumeei bakarrik gertatzen zaiela sinesten dut.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Marimar: Iruditzen zait emakumeak etxean utzi zuen hutsunea ez duela inork bete eta ondorioz, gauzak orain lehen baino okerrago daudela.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Monika: Ziur nago gizon batzuei lotsa ematen diela haurrak medikutara eramatea.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Viviana: Nire iritzi, belaunaldi bat edo bi beharko dira oraindik gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna erreala izateko.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Bittor: Etxeko lanak eta haurrak emakumeen ardura dela uste dute askok. Ideia honen aurka nago ni.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Gotzon: Gizon gehienek uste dute etxera dirua ekartzea nahikoa dela, baina ni ez nator bat beraiekin, oker daudela uste dut.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Adela: Nire ikuspegitik, gizonek oraindik ez dute onartu etxeko ardurak hobeto banatu behar direla.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Leire: Hiru emakumeetatik batek uste du bakarrik ari dela familia aurrera ateratzen. Hamarretik bik pentsatzen dute bikotea zama dela eta ez laguntza.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Naroa: Lau emakumetatik batek dio haurrak izatea zama bat dela bere lanerako eta ni ados nago beraiekin.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

## 6- Laburbilduz

Idazteko garaia iritsi zaizu. Sekuentzian zehar jaso dituzun informazio eta ideiak kontuan izan eta idatzi bat osatzen saia zaitez.

Aipatu behar dituzu, gutxienez:

- Zein diren ohiko ardurak/eginbeharrak eguneroko bizitzan.
- Nolako irtenbideak bilatzen dituen jendeak: adibideren bat eman ezazu.
- Zure iritzia: ardurak beste era batera banatu behar dira, bai ala ez?



## 1- Mikelek egiten duena

- 1.- Zer ordutan esnatzen da Mikel? **Mikel seietan esnatzen da egunero.**
- 2.- Zer ordutan egon behar du lantokian Mikelek? **Mikelek zazpitan egon behar du lantokian.**
- 3.- Zer egiten du jaiki ondoren? **Jaiki ondoren dutxa eder bat hartzen du.**
- 4.- Zer egiten du dutxatu eta gero? **Dutxatu eta gero arropa janzten du.**
- 5.- Nola joaten da lanera? **Lanera autobusez joaten da.**
- 6.- Noiz ateratzen da lanetik? **Lanetik ordu bietan ateratzen da.**
- 7.- Zer egiten du bazkalondoan? **Bazkalondoan lo-kuluxka bat egiten du.**
- 8.- Nork jasotzen ditu haurrak ikastolatik? **Mikelek jasotzen ditu haurrak ikastolatik.**
- 9.- Nork laguntzen die haurrei eskolako lanak egiten? **Mikelek laguntzen die haurrei eskolako lanak egiten.**
- 10.- Zer egiten du Mikelek bere emaztea etxeratzen denean? **Mikel bere emaztea etxeratzen denean atera egiten da.**
- 11.- Non afaltzen du normalean Mikelek? Norekin? **Etxean afaltzen du normalean Mikelek, bere familiarekin.**

## 2- Anak egiten duena

- 1.- Zer ordutan esnatzen da Ana? **Ana sei eta erdian esnatzen da.**
- 2.- Zer ordutan egon behar du lantokian Anak? **Bederatzietan egon behar du Anak lantokian.**
- 3.- Zer egiten du jaiki ondoren? **Jaiki ondoren, gosaria prestatzen du beretzat eta bere senararentzat.**
- 4.- Nola joaten da lanera? **Autoz joaten da lanera.**
- 5.- Noiz ateratzen da lanetik? **Arratsaldean ateratzen da lanetik.**
- 6.- Zer egiten du Anak etxeratzen denean? **Etxeratzen denean afaria prestatzen hasten da.**
- 7.- Zer egiten du Anak afalondoan? **Afalondoan haurrak ohera bidali eta irakurtzen aritzen da.**

## 4- Gizon batzuek hartutako erabakiak

1. Iñakik **amatasun-bajagatik** lau aste eskatu zituen.
2. Rafaellek **ordutegi-aldaketa** eskatu zuen, goizez hurrez arduratzeko.
3. Josebak **lanaldi-murrizketa** eskatu behar izan zuen lantokian.
4. Patxik **txanda-aldaketa** eskatu zuen gauetz lan egiten hasteko.

## 5- Zenbat buru, hainbat aburu

Naroa: (ALDE DAUDENAK)
Adela: (ALDE DAUDENAK)
Bittor: (ALDE DAUDENAK)
Bautista: (AURKA DAUDENAK)
Gotzon: (ALDE DAUDENAK)
Estibalitz: (ALDE DAUDENAK)
Leire: (ALDE DAUDENAK)
Monika: (ALDE DAUDENAK)
Marimar: (AURKA DAUDENAK)
Viviana: (ALDE DAUDENAK)